



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko urtarrilaren 3a

2. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuaren premiatzen da beharrezkoak diren legezko mekanismoak artikulatu dituzten Nafarroako Gobernuaren ordezkariak ECOFINen bilkurretan parte hartu ahal dezaten. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da exiji dezan euskal preso politikoaren eskubideak errespetatu daitezela. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da ETB ikusi ahal izateko jardunbide berriak azter ditzan. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da ez dezan jarrai Estatuarekin prestazio handiko trenari buruz sinaturiko hitzarmena aplikatzen. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da 2013ko aurrekontuen zirriborroan sar dezan aurreko urteetatik datorren zenbateko konprometua. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da lehentasuna eman diezaizen Toki Azpiegituren Planera eta Errepideen III. Plan Zuzendarira bideratutako baliabide ekonomikoei. Mozioa erretiratzeko (8. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Operaren Lagunen Gayarre Elkarteak eginiko proposamenari buruzkoa, zeinaren bidez eskatzen baita Baluarteak, Gayarre Antzokiak eta Gaztambide Antzokiak elkarte horrek sustatutako operak azpikontratatzeko, Aitziber Sarasola Jaca andreak egingo (9. or.).
- Galdera, Sodenaren eta Europako Inbertsio Bankuaren arteko hitzarmena eta entitate finantzarioekin egin beharreko hitzarmenak sinatzeari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egingo (10. or.).
- Galdera, Sodenak Parquenas SA sozietateari (Senda Viva) eginiko kapital-ekarpenari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egingo (10. or.).
- Galdera, jakiteko Larraldietarako Landa Zerbitzuak berrikusi eta aldatzeko asmorik ba ote den, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egingo (11. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2012rako (12. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2012rako (13. or.).
- Parlamentuko Mahaiaren abenduaren 27ko Erabakia, Erregistro Telematikoaren funtzionamenduari buruzkoa, Comptos Ganberari dagokionez (13. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren legezko mekanismoak artikulatzen dituzten Nafarroako Gobernuaren ordezkariak ECOFINen bilkuretan parte hartu ahal dezaten.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren legezko mekanismoak artikulatzen dituzten Nafarroako Gobernuaren ordezkariak ECOFINen bilkuretan parte hartu ahal dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran premia eztabaidatu eta bozkatzeko.

Gauzatzen ari den harmonizazio fiskala, Europan beharrezkotzat jotzen dena, abagune garrantzitsua da zerga alorrean jatorrizko eskumenak –eskumen paraestatalak, eskubide historikoak osatzen dituztenak– dauzkaten entitate politikoek azter dezaten harmonizazio fiskal horren erabaki-esparruetan egotearen auzia, besteak beste Ecofin-en.

Agerikoa da Europar Batasunak bere gain hartu duela politika fiskalen gainbegiratzeko eta kontrolatzeko zeregina, eta horrek eragina du bai Nafarroaren bai Euskal Autonomia Erkidegoaren

eskumen historikoetan, opor fiskalei buruzko lege eta arauen auziak garbi erakusten duenez. Eskumen historiko horien defentsak eta gure ogasunek duten egoera berezitik Europar Batasunari egin ahal diogun ekimenen eta esperientzien ekarpenak dakarren ardura eraginkortasunez betetzeko modu bakarra da bateratuta eta indar politikoak koordinatuta aritzea.

Historiak erakusten du Nafarroak bere kasa ezin duela saiatu alor fiskaleko koordinazio- eta erabaki-esparruetan egoten, ezta bere presentzia ziurtatu ere, nahiz eta esparru horietan hartzen diren erabakiek eragiten dioten eta soilik esku-hartze zuzenaren bidez defenda daitezkeen eraginkortasunez.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du behar diren lege-mekanismoak eta arauak artikulatzen dituzten, Nafarroako Gobernuko ordezkariak Espainiako Gobernuko ordezkariekin batera joan daitezkeen Ecofinen bilkuretarantz, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumena diren arlo fiskalekin lotutako gaiak aztertzen direnean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekimena har dezan, Eusko Jaurlaritzarekin eta alor fiskalean eskumenak dituzten gainerako hiru lurraldeekin –Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba– negoziatzeko eta adostasunak lortzeko, eskumen fiskalen alorrean dituzten interes komunak Ecofinen esparruan defendatzeko jarduketa koordinatua hitzartze aldera eta, kasua bada, indar instituzionalak batzeko eta arlo horretan ere Nafarroako Gobernuarekin harremanak izateko.

Iruñean, 2011ko abenduaren 19an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da exiji dezan euskal preso politikoen eskubideak errespetatu daitezela.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita exiji dezan euskal preso politikoen eskubideak errespetatu daitezela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluan eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Une historiko bizi dugu. Azken hileotan mugimendu eta erabaki inportanteak ezagutu ditugu bakea lortzeko bidean. Azken hamarkadetan bizi izan dugun indarkeri egoera behin betiko ixteko aukera eta eztabaida demokratikoan oinarritutako eskenatokiaren ateak ari dira irekitzen.

Gernikako Akordioak, Aieten Nazioarteko Komunitateak eta ETaren erabakiak, gatazka politikoa, bake bidera eramateko aukera baten aurrean jarri gaituzte. Normalizazio politikora bidean eman beharreko urratsetan, besteak beste, euskal preso politikoen eskubideen errespetua bermatu beharko da.

Hori guztia kontuan hartuta, honako adierazpen hau aurkeztu du Bildu Parlamentu taldeak Nafarroako Parlamentuan, eztabaidatua eta onartua izan dadin:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, bizi garen aukera historiko honen aurrean, Euskal Preso Politikoen eskubideen errespetua eskatzera.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du dispertsioaren amaiera eta euskal preso guztien Euskal Herriratzea eskatzera.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gaixotasun larriak dituzten presoek askatzea eskatzera.

4.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zigorra beteta dutenen askatzea eskatzera.

Iruñean, 2011ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro y Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ETB ikusi ahal izateko jardunbide berriak azter ditzan.

NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ETB ikusi ahal izateko jardunbide berriak azter ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremenetako Batzordeak iragan abenduaren 20an eginitako lan bileran, aukera izan genuen Navarra Directo telebista-programako langileen ordezkari entzuteko. Bilkura hartan, parlamentu-talde guztiek langileekiko elkartasuna eta haien lan egoerarekiko kezka adierazi zuten.

Bestalde, askotan mintzatu gara ikus-entzunezkoen sektoreak Nafarroan bizi duen egoeraz, eta Parlamentu honek zenbait ebazpenen bidez adierazi du beharrezkoa dela sektore hori babestea eta sustatzea. Askok dira gai horren inguruan aztertu ditugun alderdiak, besteak beste Ikus-entzunezkoen Sektorea Dinamizatzeko Plana, irriti lizentziak, ETB LTDaren bidez ikusi ahal izatea...

Gure ustez, ikus-entzunezkoen sektorearen egoera kezagarria da, eta badira sektore horri bultzada bat emateko moduak, edo behintzat ego-

erak okerrera egin dezan saihestekoak. Ikus-entzunezkoen produkzioarako dirulaguntzak lehiaketara aterako dira heldu den urtean, azken urteotan gertatu ez bezala, kontusail izendunen bidez esleitzen baitziren. Hori, zalantzarik gabe, aukera bat da dirua gardentasun handiagoz bana dadin, oraindik zehazteke dauden irizpide batzuen arabera. Nafarroako Gobernuak denbora darama esanez ez dagoela modurik aurrera egiteko ETB LTDaren bidez ikusi ahal izateari dagokionez, arazo ekonomikoak tarteko. Aldiz, uste dugu egiazko borondatea baldin badago gai horri buruz onetsitako erabakiak betetzeko, beharrezkoa dela aukera berriak aztertzea, EAeko Gobernuak milioi bat euro ordain ditzan itxoitetik haratago. Zaila da sinestea ez dagoela beste biderik Nafarroako gizartearen eskaerari erantzuteko, ez bada tartean badirelako beste arrazoi batzuk, ekonomikoez gain, ETB LTDaren bidez ikusi ahal ez izateko.

Hori dela-eta, behean sinatzen dugu parlamentu-taldeen ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die Navarra Directo telebista-saioko langileei eta aitortzen du saio horrek eginitako zabalkunde lana. Halaber, uste du okerra dela saio hori bertan behera uztea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jardunbide berriak azter ditzan, LTDaren bidez ETB Nafarroan hartu ahal izateko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko epean argitu ditzan ikus-entzunezkoen produkzioarako dirulaguntzak emateko irizpideak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikus-entzunezkoen sektoreko lanpostuak babesteko ahalegina egin dezan, gaur egun sektore horren egoera zaila eta ahula baita.

Iruñean, 2011ko abenduaren 22an

Foru parlamentariak: Aitziber Sarasola Jaca, Txema Mauleón Echeverría eta Nekane Pérez Irazabal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan jarrai Estatuarekin prestazio handiko trenari buruz sinaturiko hitzarmena aplikatzen.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez dezan jarrai Estatuarekin prestazio handiko trenari buruz sinaturiko hitzarmena aplikatzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Egoera ekonomikoa, soziala, enpleguarena, zerbitzu publikoena, desoreka sozialena eta lurraldeen arteko desorekarena larria den honetan, Nafarroako Gobernuak tinko jarraitzen du beraien esanetan urriak diren baliabide publikoak Nafarroako AHTaren lanei ekiteko erabiltzeko asmotan. Eta hori, lan horiek Estatuaren eskumenekoak izanda eta obren plangintza eta egite-epeak lotu gabe egonda, Estatuak ezarriko dituen epeei buruzko berme nahikorik gabe.

Nafarroako Gobernua lehiaketara ateratzen eta esleitzen ari den obrak ez dira obra zibil osoaren zati txiki bat besterik. Hala, Nafarroako trazaduraren zati handienak, bai eta Aragoiko edo EAeko lotunek eta obren alderdi teknikoak ere, Estatuaren esku jarraitzen dute. Horrek, praktikan, esan nahi du Nafarroa zenbait lan egiten ari dela hainbat urteko aurrerapenarekin bi aldeetako jarraipenari dagokionez, eta urte batzuetan zementuzko korridore bat izanen dugula, errail, linea edo trenik gabe.

Bestalde, Estatuako Administrazioak, Adifek eta Nafarroako Foru Administrazioak sinaturiko hitzar-

menaren seigarren klausularen irakurketatik ez dirudi ondorioztatzen denik azken hori behartuta dagoenik hitzarmenean bertan aurreikusitako lanen egutegia betetzera, Estatuak aurreikusitako urteko kuoten arabera obrak ordaintzeko baldintza gisa –10 milioi 2013an, 25,65 milioi 2014an, 30 milioi 2015ean, 170 milioi 2016an eta 152 milioi 2017an–. Aldiz, badirudi nahikoa dela zenbateko horiengatik lanak eginak izatea Estatuak urteko kuotak ordain ditzan. Hauxe esaten da hitzez hitz: “Edonola ere, urteko kuotek ezin izanen dute gainditu betetako obraren kostu osoa, kontratazio-organoak ordaindutako eta kontratu honen bigarren klausulako 2. puntuan aurreikusitakoari jarraikiz osatutako Azpibatzerde Teknikoak konformatutako ziurtagirien arabera.”

Bitxikeria dirudi, ez bada ausarkeria, ahalegin horri lehentasuna ematea eta beharrezkoa ez den finantzaketa-gastu baten zama hartzea, aldi berean herritarrei sakrifizioaren diskurtsoa transmititzen zaienean eta alor sozial guztietan murrizketak egiten ari direnean.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan jarrai aplikatzen Estatuarekin sinatutako hitzarmena, zeinaren bidez Nafarroak aurreratu ahal baititu prestazio handiko trenaren Nafarroako zenbait zatitako lanak eta haien finantzaketa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan jarrai hitzarmen hori aplikatzen Estatuak ziurtatzen ez duen bitartean bere eskumen osokoak diren zatiak abian jarriko dituela edota Nafarroak esleitutako zatietako jarduketa teknikoak egiten dituela.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan jar baliabide ekonomiko berekirik aipatu zatiak eraikitzeko, krisialdi ekonomikoaren eta aurrekontu-murrizketen eraginez derrigorrezkoa den bitartean murrizketak egitea oinarrizko zerbitzu publikoen prestazioan eta krisiak erasandako pertsonen oinarrizko beharri zati ematen zaien erantzunean.

Iruñean, 2011ko abenduaren 22an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko aurrekontuen zirriborroan sar dezan aurreko urteetatik datorren zenbateko konprometitua.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2013ko aurrekontuen zirriborroan sar dezan aurreko urteetatik datorren zenbateko konprometitua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Aurrekontuen negoziazio prozesuan, egiaztatu ahal izan dugu, behintzat zenbait departamenturi dagokionez, negoziatzen ari den aurrekontuaren urterako aurreko urteetan hartutako konpromisoek duten garrantzia. Hala, inbertsioen sustapenari buruzko programan, 2012ko aurrekontuetan, esleitutako ia diru guztia konprometituta dago jadanik; hori dela eta, ez dago inolako maniobra-tarterik.

Antzeko zerbait gertatzen da Enplegu Planari buruzko programarekin; izan ere, programa horretako gastuen kontusailak nagusiki Madrildik –eta neurri askoz txikiagoan, Europatik– jasotzen diren dirulaguntzek baldintzatuta daude.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2013ko aurrekontuen zirriborrotik aurrera sar ditzan, aurrekontu-programen arabera, aurreko urteetatik datozen kopuru konprometituak, posible den azken egunera arte, bai eta dirusarrera-kontusailek baldintzaturiko gastu-kontusailak ere.

Iruñean, 2011ko abenduaren 22an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasuna eman diezaien Toki Azpiegituren Planera eta Errepideen III. Plan Zuzendarira bideratutako baliabide ekonomikoei.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen lehentasuna eman diezaien Toki Azpiegituren Planera eta

Errepideen III. Plan Zuzendarira bideratutako baliabide ekonomikoei. Mozio hori 2011ko urriaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Operaren Lagunen Gayarre Elkarteak eginiko proposamenari buruzkoa, zeinaren bidez eskatzen baita Baluarteak, Gayarre Antzokiak eta Gaztambide Antzokiak elkarte horrek sustatutako operak azpikontratatzea.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, Operaren Lagunen Gayarre Elkarteak eginiko proposamenari buruzkoa, zeinaren bidez eskatzen baita Baluarteak, Gayarre Antzokiak eta Gaztambide Antzokiak elkarte horrek sustatutako operak azpikontratatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jacak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Araudiari jarraiki, ondoko galdera egin nahi du, Osoko Bilkuran Kultura Kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniain jaunak ahoz erantzun dezan.

Pasa den abenduaren hasieran AGAO taldeko kideek proposamen zehatza burutu zioten Nafarroako Gobernuari, Baluarteak, Gaiarrek eta baita Tuterako Gaztambidek AGAOk bultzatzen dituen opera lanak azpikontrata ditzan. Jakinki 2012ko aurrekontuetan kultur eragile honek izan duen murrizketa zenbatekoa izan den, parlamentari honek jakin nahi du:

Zein asmo dauka kultura sailak AGAO operaren lagunek egindako proposamenaren aurrean? Kultura Departamenduak bultzatuko al du azpikontraten bide hori?

Iruñean, 2011ko abenduaren 21ean

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Sodenaren eta Europako Inbertsio Bankuaren arteko hitzarmena eta entitate finantzarioekin egin beharreko hitzarmenak sinatzeari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Sodenaren eta Europako Inbertsio Bankuaren arteko hitzarmena eta entitate finantzarioekin egin beharreko hitzarmenak sinatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavillari, idatziz erantzun diezaion.

2011ko irailaren amaieran, jakinarazi zitzaigun uztailearen bukaeran Europako Inbertsio Bankuaren kontseiluak onetsi zuela Sodenari Moderna mailegu orokorra ematea, 250 milioi eurokoa, eta beharrezkoak ziren hitzarmenak prestatzen ari zirela, entitate finantzarioekin sinatzeko.

Horra galdera: Sodenak eta Europako Inbertsio Bankuak sinatu al dute jada mailegua? Sinatu al dira jada entitate finantzarioekiko hitzarmenak? Ez badira sinatu oraindik, zein da aurreikusitako egutegia?

Iruñean, 2011ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, Sodenak Parquenas SA sozietateari (Senda Viva) eginiko kapital-ekarpenari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Sodenak Parquenas SA sozietateari (Senda Viva) eginiko kapital-ekarpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Landa Garapen, Berrikuntza, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicoechea Zubelzu andreak idatziz erantzun dezan:

Iragan abenduaren 14an Parquenas SA (Senda Viva) sozietateari buruz eginiko agerraldian, Lourdes Goicoechea andreak esan zuen Nafarroako Gobernuaren ekarpena, guztira (kapitala+kredituak+abalak) 58.134.651,79 eurokoa zela, eta aitortu zuen ezen, sozietatearen kapitalaren % 45a eduki arren, Sodenak berak bakarrik egin ziela aurre proiektuak eskatzen zituen ekarpen guztiak,

hori egin ezean proiektuak ezin izanen zukeelako aurrera egin. Hala ere, gutxienez ere beste hiru bazkideetako bat –Hiscan Patrimonio II S.L.U.– Nafarroako Kutxaren sozietate bat da, eta, zalantzarik gabe, diru-ekarpenak egiteko ahalmen finantzario nahikoa zuen. Bestalde, esan zitzaigun jarritako funts guztietatik, 4.050.000 euro kapitala zirela, eta 21.050.000 euro partaidetza-maileguak zirela. .

Hauek dira galderak:

1. Zergatik gainerako hiru bazkideek oro har, eta aipatu Hiscan Patrimonio II sozietateak ez dute ekarpen proportzionalik egin? Gainerako bazkideek edo horietako baten batek eman al diote kontrabermerik Sodenari, jarritako kreditu eta abalengatik? Zein?

2. Zer administrazio-organo dauka Parquena-sak? Ba al du Sodenak organo hori izendatzeko ahalmenik, gainerako bazkideen iritzia kontuan hartu gabe?

3. Bazkideekin hitzartu al da ez dela dibidendu-banaketarik eginen Sodenak sozietateari egindako maileguak kobratu arte eta gainerako bazkideen baldintza beretan jarri arte?

4. Kasua bada, zer itun sinatu ditu Sodenak gainerako bazkideekin, eginiko ekarpenen desorekaren ondorioz?

Iruñean, 2011ko abenduaren 20an

Foru parlamentaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, jakiteko Larrialdietarako Landa Zerbitzuak berrikusi eta aldatzeko asmorik ba ote den.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Larrialdietarako Landa Zerbitzuak berrikusi eta aldatzeko asmorik ba ote den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Osasun Departamentuak ba al du asmorik landa eremuko larrialdi zerbitzuak berrikusi eta aldatzeko? 2.- Hala bada, nolakoak izanen dira berrikusketa eta eginen diren aldaketak?

Iruñean, 2011ko abenduaren 20an.

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2012rako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legelari Nagusiaren txostena ikusirik, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2012ko egutegia onestea. Hauexek izanen dira asteburutik kanpoko jaiegunak eta egun bereziak:

- Uztailaren 6a, 9a, 10a, 11, 12a eta 13a: Sanferminetako jaiegunak.

- Abenduaren 31: jaieguna.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko administrazioarako oro har ezarritakoak.

2. Ohiko lanaldia egun indarra duen berbera izanen da, astelehenetik ostiralera.

Urtarrilean, lanaldia 08:00etatik 15:00etara bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik eta 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:30etik eta 15:30era bitarteko mal-

gutasuna. Betiere, egunean 7 ordu benetako bete beharko dira lanean.

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00etatik 15:00etara bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 6 ordu eta erdi bete beharko dira lanean.

Abenduaren 28an lanaldia 6 ordukoa izanen da, 7:30etik 13:30era.

3. Gainerako egunetarako lan txanda hauek izanen dira langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

a) Goizeko txanda.

b) Goiz eta arratsaldeko txanda.

c) Arratsaldeko txanda.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2012rako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 107. eta 109 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2012. urterako haxe izanen dela:

Urtarrilean, uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian:

– Astelehenetik ostiralera:
09:00etatik 14:00etara.

– Uztailaren 6an, 9an, 10ean, 11n, 12an eta 13an itxita egonen da, eta baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

Otsailetik ekainera bitarteko hilabeteetan, irailaren bigarren hamabostaldian eta urritik abendura:

– Astelehenetik ostegunera:
09:00etatik 14:30era.
17:00etatik 19:00etara.

– Ostiralean: 09:00etatik 14:30era.

– Abenduaren 28an zabalik egonen da 9:00etatik 13:00etara.

– Abenduaren 31n itxita egonen da, eta baliogabea izanen da ondorio guztietarako.

2. Baliogabeak izanen dira, halaber, larunbat, igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Parlamentuko Mahaiaren abenduaren 27ko Erabakia, Erregistro Telematikoaren funtzionamenduari buruzkoa, Comptos Ganberari dagokionez.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuak eta Comptos Ganberako lehendakariak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten 2011ko azaroaren 11n, beren artean harremanetan jartzeko bideak garatze aldera. Hartan, bi aldeek konpromisoa hartu zuten beren harreman-esparruan informazioa izapidetzerakoan eta dokumentazioa trukatzekoan prozedura elektronikoa eta, kasua bada, telematikoak baliatzeko.

Xede horiek betetze aldera, Nafarroako Parlamentuak, hitzarmen horretako hirugarren klausularekin bat, Parlamentuaren Erregistro Telematikorako sarbidea eman dio Comptos Ganberako lehendakariari. Sarbidea eranskin gisa doazen funtzionamendu-jarraibideekin bat eginen da, eta Comptos Ganberako lehendakariak alde aurretik ezagutu eta onetsi ditu jarraibide horiek, lankidetzaz hitzarmen horretan ezarritako esparruaren barruan.

Hori horrela, Erregelamenduko 37.1.1 artikulua-rekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea ezen 2012ko urtarrilaren 2tik aitzina –astelehena da–, Nafarroako Comptos Ganberarekin trukatu beharreko informazio eta dokumentazio guztia Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Telematikoaren bidez izapidetuko dela, hurrengo atalean ezartzen diren jarraibideekin bat; salbuespenez, erregistrora bertaratuta aurkeztu ahalko da dokumentazioa, bide hori baliatzea komenigarriagoa dela iritiz gero.

2. Onestea Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Telematikoaren funtzionamendu-jarraibideak, erabaki honen eranskin gisa ageri direnak.

3. Ezartzea ezen 2012ko urtarrilaren 2tik aitzina –astelehena da–, Nafarroako Parlamentuak posta elektronikoa bidez igorriko dizkiola deialdi eta ofizio guztiak Nafarroako Comptos Ganberari, “Ofizioak eta deialdiak posta elektronikoa bidez igortzea” moduluaren bidez hain zuzen ere, Comptos Ganberak hautatzen duen helbide elektronikora.

4. Legebiltzarreko zerbitzuei agintzea hartu beharreko neurriak har ditzaten, aurreko ataletan xedatutakoa bete dadin.

5. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Eranskina

Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Telematikoaren funtzionamenduari buruzko jarraibideak, Comptos Ganberari dagokionez

Erregistro telematikorako esteka:

Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Telematikorako esteka Nafarroako Parlamentuaren web atariko "Atal Pribatua" egonen da. Bertatik bidali ahal izanen da informazioa Nafarroako Parlamentuko Erregistroa.

Nork duen zilegi erregistro telematikoak igortzea:

Nafarroako Comptos Ganberan baimena duten haren langileek soilik bidali ahalko dituzte erregistro telematikoak.

Horiek guztiek helbide elektronikoa aktibo bat eduki beharko dute Agoran.

Kautotzea:

Parlamentuaren Erregistro Telematikoan sartu ahal izateko, Txanponen eta Zigiluen Fabrika Nazionalaren ziurtagiri digital bat eduki beharko dute eta sistemak hura kautotuko du. Gero, haien eta Parlamentuaren zerbitzariaren arteko konexio segurua ezarri ahalko da.

Bistaratu den lehenengoa izanen da konexio segurua ezartzeari buruzko abisua. "Aceptar" klikatu ondoren eta ziurtagiriaren IFZa irakurrita, kasuko pertsona edo entitatea identifikatuko da.

Erregistro Telematikoan datuak sartzea eta datuak igortzea:

Behin identifikatu ondoren, informazioa hartzeko orrialde bat agertzen da, honako eremuak dituena:

Igorlea:

Erakundearen edota kautotutako pertsonaren izena ageri dira.

Dokumentu mota

Igortzen ari den dokumentuaren mota hautatu behar da.

Dokumentuari atxikitako espedienteak:

Espediente berria – Espediente mota

Lehendik dagoen espedienteak – Espediente zenbakia

Igortzen den informazioak espediente berri bat ireki beharra ekartzen badu, "Nuevo expediente" markatu beharko da eta sortu beharreko espedientearen tipologia hautatu beharko da. Etorkizunean tipologia berri gehiago sortzeko aukera galarazi gabe, honako hauek dira tipologiari ohikoak:

- CCO (Cámara de Comptos)- hemen jasotzen dira publikoak diren edo funts publikoak erabiltzen dituzten erakunde eta entitateei buruz Comptos Ganberak eginiko fiskalizazio txostenak edo beste edozein txosten.


- LEY (Proyecto de Ley Foral)- hemen jasoko dira Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen aurrekontu-aldaketan gaineko legeztatun-txostenak eta Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko fiskalizazio txostenak.

- ELC (Elecciones y designaciones de cargos)- hemen jasoko da Comptos Ganberako lehendakaria hautatzearekin eta kentzearekin zerikusia duen guztia.

- COM (Comparecencias)- Comptos Ganberako lehendakariaren agerraldietarako, lehendakariak berak eskaturikoak.

- SYC (Solicitudes y otras comunicaciones)- Araubide hauen azkeneko epigrafean xedatutakoaren arabera, tipologia honetan jasotzen dira parlamentu-espedienteak ez diren gainontzeko eskaerak eta jakinarazpenak (Comptos Ganberako aurrekontuen proiektua, jardueren urteko txostena, Comptos Ganberako kontu orokorrak, Parlamentuaren kontuei buruzko aholkularitza, Comptos Ganberaren araudia aldatzeko proposamenak, Parlamentuko kontuak aztertzen dituen auditorearen jakinarazpena, plantilla organikoa onestea eta abar).

Igortzen den informazioa lehendik dagoen espediente bati lotuta baldin badago, espediente zenbakia "Numero de expediente" eremuan jarri beharko da.

Orrian  ikonoa ageri da, zeinak espediente-kontsultarako sarbidea ematen baitu, kasuko espediente zenbakia jakiteko laguntza gisa.

Igorri beharreko dokumentazioaren deskribapena

Erregistroa bidaltzen den dokumentazioaren deskribapena.

Testua - Erantsitako fitxategia

"Fichero adjunto" botoian klikatuta, leiho bat ireki ahalko da, eta horren bidez hautatu ahalko da Erregistroa igorri nahi den fitxategia, hain zuzen ere sortzen den oharrari atxikitako fitxategia.

hori Officeko edozein fitxategi zein pdf fitxategi bat izan daiteke.

Fitxategiak Comptos Ganberako lehendakariaren edo, behar denean, Idazkari Nagusiaren Txanponen eta Zigiluen Fabrika Nazionalaren ziurtagiri digitalaren sinadura izanen du.

Botoiak-Aukerak:

Limpjar

Eremuetan sartutako informazioa ezabatu egiten du. Datuak gaizki sartu direnean erabiltzen da.

Firmar y Enviar:

Inprimakia elektronikoki sinatuko da, Nafarroako Comptos Ganberaren ziurtagiriarekin.

“Firmar y Enviar” botoia sakatutakoan, azken ohar bat agertuko da sinadura berresteko edo ezezteko, eta jakinarazten da ezen, behin sinatuta, ezin izanen dela ezer aldatu.

“Cancelar” sakatuta, sinadura ezeztatu eta informazioa sinatu gabe eta Erregistroa igorri gabe geldituko da.

“Aceptar” botoia sakatzean, igorleari sinaduraren pasahitz pertsonala eskatuko zaio, igorri behar duen informazioa modu elektronikokoan sinatuta gera dadin.

Behin pasahitza sartuta (sinadura elektronikokoaren exekuzioa), informazioa Parlamentuko sistemak jasoko du, eta, modu automatikoan, eskaera-zenbaki bat esleituko dio, zeinak igorritako informazioa identifikatzen baitu.

“Aceptar” botoia sakatzean, eragiketa behar bezala egin dela adierazteko mezu bat ageriko da pantailan.

Ondoren, Nafarroako Parlamentuaren komunikazio bat jasoko du eskatzaileak posta elektronikokoaren bidez, ziurtagiri gisa, bere eskaria jaso izanaren berri emateko.

Eskaeraren egiaztagiria jasotzen ez bada, horrek esan nahi du dokumentazioa ez dela jaso Erregistro telematikoan, eta, beraz, pertsona interesdunak beste une batean aurkeztu behar duela.

Erregistro telematikoan idatzoharra egitea:

Nafarroako Comptos Ganberak edo hark gaitutako langileek igorritako erregistro telematikoak sarrerako ontzi batean geldituko dira, Parlamentuko Erregistroak haien idatzoharra egin zain.

“Anotación en el Registro de Entrada” funtziotik, Erregistroaren ardura duenak “Pendientes” botoia sakatzen duenean, igorri diren erregistro telemati-

koen zerrenda ikusiko du, eta aukera izanen du horiek hautatzeko eta horien idatzoharra egiteko.

Behin erregistro telematiko baten idatzoharra eginda, Comptos Ganberak Parlamentuaren mezu elektronikoko bat jasoko du, bere eskaerari esleitu zaion erregistro zenbakiarekin.

Idatzoharrik ez bada egiten, aplikazioak automatikoki igorriko dio mezu elektronikoko bat Agoran aktibatuta duen kontura, eta, bertan, adieraziko zaio inongo argibiderik behar izanez gero zer helbideren bidez jar daitekeen harremanetan Nafarroako Parlamentuaren Erregistroarekin.

Dokumentuen aurkezpena eta Erregistro Telematikoan dituen eraginak:

Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Telematikoan urteko egun guztietan eta eguneko 24 orduetan aurkez daitezke dokumentuak.

Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Telematikoan aurkezten diren dokumentuak, Erregelamenduan ezarrita dauden epeen edo bestela ezar daitezkeen epeen betetzeari begira, ulertuko da egun horretan bertan aurkeztu direla, baina, betiere, Legebiltzarreko Mahaiak Erregistro Orokorrentzat ezarritako ordutegi ofizialaren barruan sartu badira.

Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorra jendearentzat irekita dagoen ordutegitik kanpo jasotako dokumentuak, Erregelamenduko epeen edo bestela ezar daitezkeen epeen betetzeari begira, ulertuko da hurrengo egun baliodunean aurkeztu direla. Hori kontuan hartuta, horiek izanen dira, ireki bezain laster, idazpena egin zaien lehenbizikoak. Idazpenak, betiere, aurkezpen-ordenaren arabera eginen dira, edozein izanik ere aurkezpen-ordua.

Mantentze-lan teknikoak edo arrazoi operatibok direla medio Erregistro Telematikoan dokumentuen jasotzea eten behar izan denean, behar-beharrezkoa den denboran, ahal bezain laster emanen zaio horren berri Comptos Ganberari, zehaztutako helbide elektronikokoaren bidez.

Parlamentu-espeditenteak EZ diren idazkiak eta komunikazioak Erregistro telematikoan aurkeztea:

Baldin eta bide telematiko bidez erregistratu beharreko dokumentu-mota EZ bada parlamentu-espeditenteen xede den idazki edo komunikazio bat baina Parlamentuko Erregistroan jaso beharra badago, honela jokatuko da:

– Nafarroako Comptos Ganberaren lehendakariak edo hark horretarako gaitutako langileek eskabide telematikoak bidaliko dute erregistroa. Eskabide hau berriro “SYC Solicitudes y otras

comunicaciones” motatako espedientea izanen da, baina ez du parlamentu-espediente bat sortuko.

– Nafarroako Parlamentuko Erregistroko langileek erregistroko idatzoharra eginen dute, eta ez dute atxikitako espedienterik edukiko, dokumentazio mota honek ez duelako parlamentu-espedienterik sortzen.
